

IGOR EIZAGIRRE, GIZALAN KONGRESUA

BEC, 2011-11-24

Hasteko, gustatuko litzaidake nerekin batera, idazkaritza guztia tabladora igo dadila, eta esango ditudan hitzak ere bere egitea.

Lehendabizi bihotz bihotzez, eskerrik asko, benetan, gure eskerrik beroena, kongresu hau horrela irten dadin lan egin duzuen guztioi, kongresu hontan azaleratu da azkeneko 6 hilabete inguru hasitako barne lana, hau da, ponentziaren inguruan egindako hausnarketa sakona. Aukera ezin hobea izan da batzuen eta besteen ikuspegiak, iritziak eztabaidatu, alderatu eta bateratzeko. Honen emaitza ona agerian dago. Bertan parte hartu duzuen militante guztioi, bene-benetan zorionak.

Eskerrik asko ere gonbidatuei, bai Euskal Herritik, baita kanpotik etorritakoei ere; herri desberdinak baina borroka eta erronka berdinak (CIG, OSTA, STEE-EILAS, LAB). Gure artean egotea ohore handia da, eta espero degu zuek ere gure artean gustora egon izana; ez ditut ahaztu nahi gure artean ez dauden CGTPko lagun portugaldarrak. Hauek arrazoi garrantzitsu bat dute gaur hemen ez egoteko: Portugalen gaur greba orokorra dute, edo daukagu, zuen borroka gure borroka ere baita.

Bestalde Euskal Herriko sindikatuiei (hemen daudela aprobetxatuz) esan gura nieke egoera gogor hontan, oso gogor hontan, eta zailtasunak zailtasun, euskal gehiengo sindikalaren beharra daukagula, beti ere edukiak adostuz eta inolako menpekotasunik gabea.

Eskertu beharra daukagu, zinez, eta idazkaritza osoaren izenean esaten det, jaso dugun babes zabala, gaurko argazkiak ongi asko isladatzen du egitasmo federal eta konfederal partaide garela, eta halaxe sentitzen garela. Eta hortaz harro egon beharra dugu.

Jaso degun babesak ere erantzukizun handia dakar berarekin, baina bihotz-bihotzez esaten dizuegu erronka hau aurrera eramateko ahal degun guztia egingo degula, zuek eta guk, guk eta zuek, denak elkarrekin, bakoitza bere erresponsabilidadeen arabera, baina denak elkarrekin; hau beti da beharrezko, baina ezinbesteko bilakatzen da daukagun erronkaren aurrean.

Ante este ataque sin precedentes que estamos viviendo, quería resaltar otra idea: la necesidad del compromiso militante de nuestra gente. Sin su compromiso militante ELA no sería nada; militamos en una organización con mas de 100 años de historia, y a lo largo de ella el compromiso militante de nuestra gente nos ha llevado a conocer la cárcel, la represión e, incluso, la muerte.

Hace poco en la despedida de un militante de nuestra federación, un compañero de fatigas de él recordó cuántas veces había dormido en un colchón del local de ELA

en la Ribera, y hoy más que nunca es necesario el compromiso militante de nuestra gente, en la defensa de los intereses de la clase trabajadora vasca. En la defensa de una Euskal Herria libre, con una sociedad justa, con unos servicios públicos de calidad y condiciones de trabajo dignas.

Podremos acertar o no, porque muchas veces nos podemos equivocar y nos seguiremos equivocando, pero en una cosa no podemos fallar: en el compromiso militante, en luchar por lo que creemos.

Vivimos en una situación dura, muy dura, en la que la clase trabajadora vasca en general y los trabajadores de los servicios públicos, en particular, estamos padeciendo un ataque sin cuartel del neoliberalismo, siguiendo las políticas marcadas por la troika (FMI, Banco Mundial y BCE), tras una larga fase en la que hicieron de la precariedad, la desregulación y las privatizaciones los ejes de su política.

Ahora quieren dar un paso más; no les vale solo con eso, quieren dismantelar los servicios públicos; en los dos últimos años los empleados públicos hemos sido los paganos de la situación, hemos perdido aproximadamente un 13% del poder adquisitivo. A esta pérdida de poder adquisitivo se suma la destrucción de empleo público; nos llevan a un modelo a la griega, que fomenta la privatización, destruye empleo y emprobece las condiciones de los trabajadores y trabajadoras de los servicios públicos y de la clase trabajadora en general. Saben que, siguiendo estas políticas, no se sale de la crisis, sino que se ahonda más en ella.

El resultado de estas políticas no es otro que la pobreza, los cierres y el desempleo; por ello tenemos la obligación y el deber de luchar para cambiar estas políticas; hoy no queda otra opción, como no ha habido nunca, más que la lucha, practicando un modelo sindical muy cercano a la gente, un modelo sindical que no se resigne a interpretar el papel que el poder económico quiere reservarnos.

Hoy la lucha de clases está más viva que nunca, y entre todos tenemos que ser capaces de trasladar a nuestra gente la esperanza que estas políticas se pueden y se deben cambiar, elaborando y socializando nuestras propuestas, y movilizándonos. Porque no es verdad que no haya otro camino: sí lo hay, pero no quieren que haya cambios en la situación. Se justifican en base a dos premisas :

1.- El establecimiento de un límite muy bajo al déficit público, y **2.-** la “imposibilidad” de modificar la política fiscal, y por tanto renunciar a recaudar más. Nosotros rechazamos ambas premisas.

El límite o la prohibición del déficit público es como si las personas y las empresas renunciáramos a pedir créditos. No hay razones económicas que justifiquen los actuales criterios restrictivos en esta materia. Y respecto a la política fiscal, ha quedado de manifiesto que no solo es posible modificarla sustancialmente, sino que renunciar a ello supone, en el actual contexto de crisis, aceptar las políticas que suponen más recesión, más paro y más recortes de las coberturas sociales.

Tenemos que exigir el cambio de las políticas de la fiscalidad, pero hay que dar un paso más, pedir y exigir el cambio, y socializar por qué lo pedimos; hay que trabajarlo y darle perspectiva ideológica: nos jugamos el futuro.

Nuestro instrumento de lucha más genuina para la redistribución de la riqueza, como es la negociación colectiva, está en serio peligro; la reforma de la negociación colectiva o la ley de función pública vasca van en esa dirección de dejarnos sin nuestro instrumento más genuino, con una intención muy clara: satisfacer los intereses del poder económico y de la patronal, y tiene un claro objetivo: empobrecer a la clase trabajadora.

Ante esta situación tenemos que defender, sí o sí, la negociación colectiva, pero la negociación colectiva no es sentarse en una mesa; no es eso; no es solo eso. Es tener correlación de fuerzas, es que quien tengas enfrente te respete. Para ello es absolutamente necesario hacer una negociación colectiva, organizada, planificada, a ras de suelo, honesta, con luz y taquígrafos, de la que nuestra gente conozca el minuto y resultado, sin complejos.

Negoiazio kolektiboa egongo da indar korrelazioa daukagun tokietan; gure esku dago, gure lanaren esku daukagu, eta gure indarraren arabera izango da; momentu hontan ez nuke ahaztu nahi azken lau urteotan beren kondizioak hobetzeko edo mantentzeko borrokatu duten langile guztiak; zailtasunak zailtasun ez dago beste biderik.

Antolatuak egotea guztiz beharrezkoa da; aurretik esandako gauzetan pausoak emateko antolatuak egon behar gara, pausoak eman behar ditugu antolakuntzan, guk jendearekin egoten garen heinean irabazten degu. Horretarako gero eta gehiago izan behar gara; gure jendea ideologikoki jantzi behar degu, argumentuak edukitzeko, diskurtso landu bat izateko beti ere praxisarekin lotuta, klase perspektiba edukita. Gu ez gara gestoria bat administrazioaren zerbitzuplean, gu ez gara teknikoak, (por supuesto que tenemos que trasladar información técnica o de las OPE), pero no vale la información neutra, tenemos que ser capaces de darle perspectiva ideológica de clase.

No hay otro camino: nuestro reto para avanzar es organizativo e ideológico. Hemos decidido estar y vivir a la intemperie, estar con la gente, socializar las ideas y pelear, desde la autonomía económica y partidaria, que no política.

Algunos últimamente dicen que estamos solos, que estamos en fuera de juego. En mi modesta opinión se equivocan de pleno: mientras nos organicemos, sindicalicemos y estemos con los trabajadores esta organización nunca caminará sola. La clave y el reto para avanzar es organizativo, es estar con la gente, socializar las ideas y pelear, no hay otro camino que la lucha y la pelea. Ya sabemos que es duro, muy duro, pero también es muy gratificante. La gente nos necesita, hoy más que nunca, sin la gente no somos nada pero la gente sin ELA está perdida.

Amaitzeko, gure federazioan oso sentitua den zerbait aipatu nahi dut. Joan den urriaren 20an pasado ETAk jakinarazi zuen jarduera armatua behin betiko eta atzera bueltarik gabe uztea erabaki duela. Orduan esan genuen bezala, erabaki hau oso berri ona da; gure herrian garai politiko berri bat irekitzen du. Seguruenik, gauza asko laster desberdinak izango dira gure herrian.

Baina une honetan guztiok bereziki gogoratzen ditugu biolentzia pairatu izan duten eta pairatzen duten pertsonak, eta giza-eskubideen edozein urraketa jasaten dutenak. Gure kide batzuk ETAk hil zituen: Joseba Goikoetxea, Montxo Doral, Joseba Agirre, Mikel Uribe ertzainak... Angel Mota eta Javier Gómez Elosegí espetxe-funtzionarioak, eta konfederazioko beste militante batzuk ere, adibidez Jesús Mari Pedrosa. Horrekin batera, ezin dugu ahaztu mehatxuek urteotan eragin duten beldurra eta oinazea, gure militante askoren eta beste hainbat herritarren kasuan.

Zoritxarrez, saminaren mapa oso zabala izan da, eta hala da oraindik. Urte askotan gure federazioak eta konfederazioak behin eta berriz salatu behar izan dituzte estatu-botere eta aparatuen jokabideak, giza-eskubideak urratu izan dituzten aldioro. Eta salatu izan dugu jokabide horiek nola ezkutatu diren, batetik; baina baita arduradun politiko eta hedabide batzuk eskubide urraketa horiek sustatu eta xaxatu izana ere, ideologia antiterroristaren itzalean.

Horregatik, kongresu honetan estatu-biolentziaren beste biktima asko ere gogoan ditugu, horien artean ere ELAko kideak ere baitzeuden; hori izan zen Mikel Zabalzaren kasua, ETAren aurkako gerra zikinaren baitan torturatu eta hil zutena.

Joan den urrian, gure konfederazioak esan zuen ETAren erabakiak garai politiko berri bat hastea egin behar zuela posible, eta garai berri horretan posible izan beharko luke giza-eskubideetan eta demokratizazioan aurrera egitea. Guk hala izatea nahi dugu, eta horrekin erabateko konpromisoa daukagu.